

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko azaroaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Nafarroa • Hilaren 10ean bukatuko da Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea
Cesar Krutxaga • «Daukadan guztia emanen nuke lehen mailan aritzearen truke»

Txotxongiloak



• Josu SANTESTEBAN

Barañaingo kulturalan

Barañain herri bat edo hiri bat den esatea zaila da. Iruñearen luzamendu bat baino zerbait gehiago dela aldarrikatu nahi du. Nafarroako hirugarren udalerria da, bertakoek behin eta berriro diotenez, eta arrunt kultura-bizitza indartsu eta dinamikoa du. Egunotan txotxongiloz josita dago, V. Txotxongilo Jaialdia egiten baitute, herriaren eskaintza kulturalaren erakusgarria nagusia.

Nafarroa • Badator euskal kantu txapelketa

Zazpigarren ekitaldian izena emateko epea azaroaren 10ean akituko da

Euskal kantagintza zabaldu eta erakusteko, laster abiatuko da 1999ko Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa. Bi kanporaketak Tafallan eta Lizarran izanen dira, eta finala, Donezteben.



Duela bi urte Donezteben egin zen kantu Nafarroako euskal kantu txapelketa. • JOXE LACALLE

EUREN IZENEAN DISKORIK karrikaratu ez duten 15 urtetik goitikoek har dezakete parte txapelketan, bakarka, bikoteka nahiz hiru eta hamar kide bitarteko taldeetan. Kanta zaharrak eta berriak eman daitezke herri-eran, baina, inolaz ere, goi mailako polifoniaz zein rock moduan, horretarako bertzelako txapelketak baitaude. Arreta berezia izanen dute kantariak asmatu-rik hitzek eta melodiek, hau da, sormenak. Partaide bakoitzak lau minutuko gehieneko iraupena duten bi kanta aurkez ditzake, eta nahi bezalako musika laguntza eramaten ahal du, baina bertze ezeren gainetik kantua aztertuko da.

Txapelketan parte hartzeko izena eman daiteke azaroaren 10a arte Euskal Kantuzaleen Elkartearen (948-228232) edo

Nafarroako edozein irrati euskaldunetan.

Bi berrikuntza

Nafarroako Euskal Kantuzaleen Elkarteak lehendakari Eugenio Arraizak adierazi duenez, bi dira aurtengo berrikuntzak. Batetik, kanporaketak Tafallan eta Lizarran egingen dira, herri horietako euskaltzaleek hala eskatuta. Tafallako kanporaketa azaroaren 20an izanen da, 17:00etan Kultur Etxean, eta Lizarrakoa, abenduaren 11n, 17:00etan Golem aretoan. Bigarrenik, disko konpaktua grabatuko dute Doneztebeko finalean parte

hartuko duten hamalau kantariekin. Finala abenduaren 18an egingen dute, 16:30etan, Bordatxo dantzalekuan.

Nafarroan 1985ean egin zen lehen kantu txapelketa, Arraizak azaldu duenez. "Euskal kantuaren ohitura galduta zegoela ikusirik, Iruñerriko euskalgintzan mugitzen ginenok txapelketa antolatu genuen. Bi urtetan behin egitea zen gure asmoa, baina gero erabaki genuen egitea haurrendako txapelketa bat urtero eta helduendako txapelketa, bi urtetan behin". Aurten ere txapelketa egiteko babesa Nafarroako Rural Kutzak eman du.

Arraizak nabarmendu du kantatzea ez dela bertsoan aritzea bezalakoa, non hizkuntza oso ondo jakin behar den, eta, horregatik, euskaltegi-tako jendea animatu nahi du bereziki. Nafarroako txapelketan hiru kantari sailkatuko dira ekainaren 17an Bizkaian Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko.

Kantu txapelketan parte hartu izan duten artean aipatzekoak dira Gorka Urbizu (Berri Txarrak), Erramun Martikorena, Gavilan (Kojon Prieto y los Huajolotes), Gozategikoak eta Mikel Markez.

→ Asier Azpilikueta

Lizarra • Maeztutarren eta haien garaiaren inguruan

HALAXE DEITZEN DIRA URTEZ urte Maeztutarren inguruan antolatzen diren jardunaldiak. Gaur hasi eta abenduaren 17a bitarte, lau adituk hitzaldi bana eskainiko dute, betiere Gustavo Maezturen bizitza eta lana gertutik ezagutu ahal izateko, eta, era berean, Maeztu inguratzan duen guztiaren atea irekitzeko xedearekin: familia, lagunak, giro kulturala, zientifikoa, filosofikoa eta artistikoa, hurbila eta urruna. Gaur arratseko zortzietan, Jaime Brihuegak Espainiako abangoardiaren jatorriak aztertuko ditu. Hilaren 11n, Victoria Combalia andreak Picasso-Miro: *begirada gurutzatuak* hitzaldia emanen du. Hirugarren ekitaldian, Kosme Barañok Picassoren zeramika ikertuko du azaroaren 25ean, eta, azkenik, Picassoren nortasunean sakontzeko aukera emanen du abenduaren 17an Maria Corralek.

Jardunaldiotan, Gustavo Maeztu Museoak margolariaren une garrantzitsuenetariko bat azpimarratu nahi du, Bartzelonan 1917an eskaini zitzaion omenaldia hain zuzen ere, Gustavo Maezturen eta Picassoren artean zegoen adiskidetasuna nabarmenduz. Haren bizitzaren funtsezko alderdia da.

→ Kristina Berasain

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gizartearen kobazuloetan arratoi nazkanteak dira nagusi. Haien dira mundu ilunean inork aukeratu ez dituen mandataru krudelak. Gau-enarak, xaguzaharrak, arratoi hegalaria laguntzaile trebeak dira goiko aldeetan. Goiko sapaie hezeak kontrolatzen dituzte batzuek, eta beheko alde irristagarrak besteek. Armiarma sareek gainerakoa egiten dute tartekoetan, belar gaixtoak, zirrikituetan sortzen diren landare tematiak nagusi egin diren paretetan. Haien menpekoak dira bertatik mugitzen diren guztiak. Haiena da dirua, eta haiena, beraz, boterea. Argitasunean irauterik ez dutenak bertara etortzen dira erremediorik gabe, eta hortxe bizitzera daude kondenatuak.

Arratoi arraza

Lurrazpiko mundu beltzean pobrezi maila desberdinak daude. Behekoen artean gaiztotasun gehien erakusten dutenei hegalak ateratzen zaizkie, eta gau-enara bihurtzen dira.

Baina, bertan ez da zoriontsurik, ezta arratoi nagusiak ere. Hauen kontura barre egiten dute beste gainerakoek, benetan gizaki mixerableak direlako.

Bizi baldintzak ez dira batere osasuntsuak kobazulo horietan. Txarrenarekin trafikatzan da, eta gizakiak duen onenarekin ere. Hortxe galtzen da laster edertasuna. Eguzki izpirik ez da kobazuloetan sartzen. Begien kolorea ezinbestez iluntzen da. Larruaren distira fereka azkarretan ezabatzen da. Noizbehinkako janaria ustela

da sarritan, gorputzaren barnekoak kutsatu egiten dira epe laburretan. Poz algarak gezurrezkoak dira; beti alkoholari eta drogei esker lorturikoak izanik, ez dute iraupen handirik izaten eta ondorio latzak uzten dituzte, ordea.

Bizitza ez da luzea gizartearen harkaitz-zuloetan, ez da erraza, ez da gizakiaren modukoa.

Arratoi eta xaguzaharren erresuman ez zaio maitasunari tokirik egiten. Menpekoek badute hala ere horren beharra, gizakiak izateari ez baitiote utzi. Argitasunetik daturkien irribarre ñimiñoaren izpiari erantzuna emanen diote segidan. Bihotzaren deirik txikiena jasota, partekatuko dute daukaten guztia, hau da gabezia.

Baztan ●

Lameriñasen Baztango irudiak

Donibane-Garaziko lehiaketan, Juan Lameriñas argazkilariak publikoaren saria jaso du

Urte gutxi daramatza Juan Lameriñasek argazkilaritzan, baina, hala ere, kalitate handiko lana lortu du Baztango mendietan orduak eta orduak igaroz.



OSO EZAGUNA DA JUAN LAMERIÑAS Baztanen, egunero bere argazki makina hartu eta inguruko txokoak goitik behera miatzen baititu argazki zehatz baten bila. Salamancan jaio zen, eta zazpi urte zituela Elizondora iritsi zen bere familiarekin. Duela gutxi, denborapasa bezala, putreei argazkiak ateratzen hasi zen, baina bere argazki makina arruntzia zen, eta ez zuen lortzen bilatzen zuena. «Putre bati oso hurbiletik atera nion argazki bat, eta errebelatzerakoan konturatu nintzen ia ez zela ikusten; izugarritzko amorrua eman zidan», adierazi du Lameriñasek. Bere



emazteak eta bere suhiak makina hobea oparitu zioten, eta geroztik ehunka karrete atera ditu. Ez du inolako irakaslerik izan, dakien guztia bere kabuz ikasi du. Putreak dira berarentzat gairik ederrena eta, hasieran, animalia horiek

eta horregatik, naturak ematen dio bilatzen duen guztia. Lainoa da beste gai garrantzitsua bere lanean: «Murtziako argazkilari batek aholkatu zidan Baztanen hain ugaria den elementu hau erabil nezan eta, geroztik, goizeko lehen

erretratatzeko zituen soilik. Pixkanaka beste gaien bila hasi zen, baina, betiere, pertsonak irudikatu gabe. Bere ustez, gizakiak ez dira inoiz natural ateratzen,

Baztan aldeak aski eskaintzen du Lameriñasek bilatzen duen natura ederretik.

JUAN LAMERIÑAS

argiekin mendira igotzen naiz ia egunero». Toki jakin batean egunak pasa ditzake, eta oso zaila egiten zaio lekuz aldatzea.

Ezagun baten bitartez bere argazkiak Donibane-Garaziko erakusketa-lehiaketara eramanean zituen joan den hila-betean, eta publikoaren saria jaso zuen. Bost argazki aurkeztu zituen, eta horietatik bi

hautatu zituzten. Berarentzat saririk ederrena jaso du, ikusleen errekonozimendua lortu baitu. Saritutako argazkia lortzeko hiru egunez igozten mendira. Berak dioenez, ordu asko sartu eta diru gutxi lortzen da afizio honekin. Gauza bitxi asko gertatu zaio bere lana egiten ari zelarik. Besteak beste, ahuntzak eta ahariak sartu izan zaizkio autoan horiei argazki bat atera nahian zebilenean. Momentu txarrak ere pasatu ditu argazkien bila. Behin baino gehiagotan hezurretaraino bustita itzuli da etxera. «Behin Itxusiko Haitzetan gora abiatu nintzen putre bat bere kabian aurkitzeko, baina gora iristerakoan kabia hutsik zegoela konturatu nintzen, eta maldan behera ipurdiko bat baino gehiago jaso nituen mendiko botak etxean ahaztu nituelako».

Elizondon zenbait erakusketa antolatu ditu, ezagunek bere lana ikus dezaten. Askok gustatzen zaio jendeak bere lana ikusterakoan euren sentimenduak azalera teza. Publikoarekin kontaktuan dagoenean konturatzen da bere lanaren balioaz. Hurrengo urtea arte itxaron beharko dugu berriro bere lanarekin gozatzeko.

→ Rakek Goñi

herri aldizkariak
Edurne Elizondo

1949an zendutako artzainen omenez

1949. urtean hegazkin istripuz hil ziren bost artzainen omenez besta antolatu zuten aldudarek joan den urriaren 30erako. Hori dela eta, zendutako artzainak gogora ekartzeko, istripu haren berri ekarri du **Herria** astekariko azken zenbakia. «1949ko urriaren 27^a. Parise Orly aireportuan bada segur mugimendu! New Yorkerat doan airekoan igaiten ari diren bidaiantarietan kazetari andana baten erditik horra Marcel Cerdan munduko boxalari hoberena. Jake de la Motaren kontra ari behar du New Yorken abenduaren 2an».

«Aratseko 8ak dira. Hegazkina airatu da. Barnean, 48 bidaianten artean bost euskaldun: Guillaume Chourout oztibartarra, Pierre Etchepare Duzunaritzekoa eta hiru aldudar: J. Pierre Su-

quillbide Nobliainekoa, J. Pierre Aduriz Iparagerekoa eta Jean Loruis Aranbel Iputxainekoa. Ez dira guti fier Marcel Cernadekin batean izaitez. Izanen dutela kondatzeko! Bostak abian dira Ameriketarat, nor Arizonarat, nor Kaliforniarat edo Idahorat artzain izateko beste ehunka gazte bezala. Beren lagunak, beren familiak utzi dituzte, zonbeit urteren buruan diru puxka bat bildurik berriz herrirat itzultzeko asmoarekin».

«Airekoan orai lo edo erdi lo daude. Denak ontsa pasatzen dira eta Azoretan dira orai. Goizeko 2ak eta 55 dira airekoaren gidariak mezu bat igortzen duelarik erraiteko San Miguel ugartearen gainekaldean pasatzen ari direla. Baina bat batean, airekoa erortzen da eta Alcariva mendia

joiten du. Ez da nehor bizirik aterako! Berria jakitean, Frantziak bere munduko xapeldun ospetsua galduko du, Euskal Herriak aldiz bere bost seme».

Herriak, bestalde, Oskorreren azken lanaren berri dakar: «Euskal Herri guzian biziki ezagutua eta biziki maitatua den Oskorri talde famatuak eskaintzen dauku joan den ekainean Urretxuko herrian zuzenean egin zen grabaketa baten fruitua, diska bat xoragarria! Iparragirre omenduz xuberotarrek ere aurten pastorala batean omendu duten Iparragirre hura bera... Urretxun sortu zena hain xuxen 1820an eta 1881an zendua dena, itzuli frango eginik kasik mundu guzian gaindi».

Txotxongiloak Barañain kulturalean

Barañaingo V. Txotxongilo Jaialdia hiriaren kultura bizitza handiaren erakusgarri da

Barañain herria edo hiria den zail da esaten. Iruñearen luzamendu baino zerbait gehiago da. Nafarroako hirugarren udalerrria da, bertakoek behin eta berriro diotenez, eta arrunt kulturabizitza indartsu eta dinamikoa du. Horren erakusgarri da egunotan hirian egiten ari diren V. Txotxongilo Jaialdia.

Hiru eraikinek osatzen dute Barañaingo kultura ekipamendua: Musika Eskola, Kultur Etxea eta Juana Maria Marcok Barañaingo Antzokia deitzen duena (Arte Eszenikoen Zentroa ofizialki). Azken hau bukatzeke dago.

Txotxongilo Jaialdian, zeina Barañaingo bizitza kulturalaren erakusgarri nagusia baita, euskara eta gaztelania erdibana joatea deigarria da. Barañaingo euskara teknikari Ana Errodonsorok dioenez, Euskara eta Kultura arloen artean dagoen koordinazio onaren emaitza da.

Jaialdia sendotzeko nahia

«Gero, beste leku batzuetan egiten dutenari erreparatu diogu», erran du Marcok. «Iragan urteko ekitaldirako TVEko programa batekin harremanetan jarri ginen, eta horren bidez Teatro de la Luna taldea ezagutu genuen, zeina iazko aldiaren protagonista bakarra izan baitzen. Aurten, eszedentzian nagolarik, txotxongilo artista eta ikertzaile europarrak, asiarrak eta afrikarrak hurbiletik ezagutzeko aukera izan dut, Charleville-Mezieresen izan bainaiz, Nazioarteko Txotxongiloen Institutua eta Munduko Txotxongilo Jaialdiaren egoitzan, hain zuzen ere».

Jaialdia sendotu nahi dutela nabaria da. Nafarroako zaharrena da, eta hala jarrai dezan nahi dute. Heldu den urterako proposamenak jasotzen ari dira dagoeneko. «Gure berri duten taldeek euren materiala bidaltzen digute ikuskizunak ezagut ditzagun. Guk ere informazioa eskatzen dugu eta, ahal dela, erakustaldiak dauden lekutara joaten gara». Gerora begira, sustrairuri dauden beste jaialdi batzuekin elkarlanean ari nahi dute, helduendako txotxongilo lerro bereizita sortu eta udal proiekturen batekin bertako artisten sormena bultzatu. «Jaialdia zabaltzea gustatu ko litzaiguke, eta lantegiak sortzea, mahai-inguruak eta argitalpenak. Hau guztia gutinaka-gutinaka egingen dugu, daukagun aurrekontuaren arabera betiere. Azken hau borondate politikoaren pean dago eta, antza denez, aldeko jarrera dago».

Erran bezala, txotxongiloen erakusketa Kultur Etxean dago. Barañaingo kultura instituzionala handik bideratzen da. Marcok, museologoa izanagatik, ez du uste Barañainek orain museoa behar duenik. «Erokeria litzateke», dio. «Barañainek, egun, museo batean edo bestelako kultura eraikin batean pentsatu aurretik, bukatu beharko luke eta abian jarri beharko luke duela 83 hilabeteetatik bukatzeke duen eraikina, Barañaingo antzokia hain zuzen ere. Abian jartzen duten egunean Barañaingo kultura ekipamenduen trilogia bukatuko dugu: Musika Eskola, Kultur Etxea eta Antzokia (ofizialki Arte Eszenikoen Zentroa deitu dutena). Orduan hasiko gara Nafarroako hirugarren udalerrriak merezi duen plan estrategikoa lantzen. Bitartean, daukagunarekin lan egingen dugu».

Euskara eta gaztelania, erdibana

Erakusketaz gain, hainbat emanaldik osatzen dute txotxongilo jaialdia. Hilaren 10ean hasiko dira zuzeneko ikuskizunak, Taupada Gipuzkoako taldeak euskaraz eta

gaztelaniaz eskainiko duen *Mari Sorgin* antzezlarekin. Ondoren etorriko dira La Mar de Marionetas Madrilgo taldearen *Cenicienta* (gaztelaniaz), Taun Taun gipuzkoarren *Txioen istorioak* (bi hizkuntzetan), Panta Rhei arabarren *Kattalin* (euskaraz), Gorakada bizkaitarren *Txano gorritxu* (bi hizkuntzetan), eta Gus Marionetas nafarren *La princesa de fresa* eta *El traje nuevo del emperador* (gaztelaniaz). Jaialdiaren azken emanaldia azaroaren 21ean izanen da.

Barañaingo bizitza kulturalaren erakusgarri nagusia den honetan euskara eta gaztelania erdibana joatea deigarria da. Barañaingo euskara teknikari Ana Errodonsorok dioenez, Euskara eta Kultura arloen artean dagoen koordinazio onaren emaitza da. Nolanahi ere, desoreka bat dago oraindik Errodonsorok azaldu duenez. «Euskal Herriatik kanpoko taldeek, noski, ez dute euren materiala euskaraz ekartzen, eta itzuli egin behar da. Eta erakusketako bisita gidatuak nik egin beharko ditut haur euskaldunek erdaldunek jasotzen duten horixe bera jaso dezaten. Nik ikasi behar izan dut erakusketaren inguruko guztia, eta bisitak egiteko beraiek darabilten traje bat eskatuko diet Taraneyakoei».

Barañaingo Udalan bada Euskara Kontseilua izeneko elkargune bat, eta han har dezakete parte herriko talde, elkarre eta kolektibo guziek. Barañaingo bizitzaren hainbat esparrutako ordezkariak daude han, Kontseilua erabat irekia baita. «Hor planteatzen dira proiektuak eta Udalak onartuko ditu edo ez, baina lortu nahi da herria eta Udalaren arteko koordinazio hori», dio Errodonsorok. «Adibidez, euskararen ordenantza bat egiteko proposamena hortik abiatu zen. Herri ekimena eta instituzioak elkartzeko bidea da Kontseilua». Euskararen esparruan bezala, beste kultur esparruetan ere izaten da herri ekimena eta Udalaren arteko harreman hori, eta hala segi dezan espero dute Barañaingo kultura bizitzak bere horretan jarraitu dezan.

Asier Azpilikueta



Asiako Hego-ekialdeko txotxongiloak izeneko erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean. Asian txotxongiloek lortu duten handitasunaz eta errespetuaz jabetzea da erakusketaren helburua. JOSU SANTESTEBAN



Juana Maria Marco

Barañaingo kultura dinamizatzailea

«Kulturako diru-laguntzak ez dira oparitu behar»

■ Nola ikusten duzu Barañaingo bizitza kulturala?
Herriarren eta politikarien ekimenez beteriko bizitza dela erran nuke. Ideiarik ez da falta. Ekimen bakoitzak hasiera, garapena eta bukaera duela ulertzea da arazoa. Kulturaren kudeaketaren ikuspegitik, hiru faseek berebiziko garrantzia dute, eta baten bat ahaztuz gero porrota etor daiteke.
■ Zer ematen dio Udalak bizitza horri?
Barañaingo garapen kulturala aberasten du. Dena den, gure lana ttikia da. Olentzeroa edo Errege Magoen Kabalgata antolatzen duten bertako kolektiboek lan handia egiten dute, edota musika proiektu bat antolatzen dutenek. Baina horiek ere Udala irabazi behar dute. Izan ere, kultura diru-laguntzak ez direla oparitu behar uste dut.
■ Noretzat izaten da Udalaren kultur eskaintza?
Lehenbizi, Barañaingo bizilagunen-

tzat, euren ordaintzen baitituzte bertako zergak. Baina jende guztiari zabaldurik gaude. Musika kontzertuetan turista alemaniarrek izan ditugu, eta gure eskaintzan etorkizun oparoa duten nazioarteko gazteak ere izan dira. Adibidez, heldu den urtarrilean Bilboko Euskalduna jauregian izanen den Yi-Jia Hou biolin jolea gure artean ere izanen da. Bestalde, literatura eta argazki lehiaketak direla eta, anitzetan tokatzen zaigu kanpoko lehiaketageiei Barañain izena letraka erratea.
■ Zer nabarmenduko zenuke eskaintza horretan?
Dena. Niretako garrantzi bera dute Anfas kolektiboaren zeramika lanen erakusketak zein herriko txarangen karrika animazioa; hala Institutuko literatura sailaren isileko lana, nola euskara zerbiztuarekin dugun koordinazioa, eta baita kultura egitaraua etxe guzietako postontzietan egon dadin udaletxeko langileek egiten duten lana ere.

Barañaingo Txotxongilo Jaialdia Nafarroako taldeekin hasi zen, baina laster ireki zitzaion mundu osoari. JOSU SANTESTEBAN

EUSKAL KANTU TXAPELKETA 1999

Izena emateko epea azaroaren 10ean bukatzen da **AZKEN EGUNAK**
Izena emateko: 948 22 82 32 / 948 17 01 51

AZAROAK 20 - 17etan
TAFALLA
Kultur Etxean
ABENDUAK 11 - 17etan
LIZARRA
Golem Aretoan



FINALA
ABENDUAK 18 - 16:30etan
DONEZTEBE
Bordatxo Dantzalekuan

ANTOLATZAILEA LAGUNTZAILEAK BABESLEA
Euskararen Kontseilua, Kultura Etxea, Tafallako Udala, Lizarrako Udala, Doneztebeko Udala, Nafarroako Rural Kutxa

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Izarbeibarreko eskola

Euskal letretan eskolaren bat famazkoa izan bada, horixe Sarako eskola izan da, Hegoaldean eta Larramendiren bultzadarekin jazo euskal letren XVIII. mendeko errenazimendua baino mende bat lehenagokoa, eta Axular nafar-lapurtar eskola-kide guztién buruzagi nabarmen.



Zinez kurios agitzen zait, ordea, bestelako eskola garaikiderik Hegoaldean ez topatzea, bereziki, Trentokoa izan zenetik, eta banago aldika aipatu ohi diren dotrina eta gisa horretako liburu solteak, bere uanean ongisko bilbaturiko sare baten barruan kokatuak ziren, edo bederik ere, ezin dela aparteko lan isolatuztat eman, eta garaiko giroan txertaturik, berebiziko esanahi propioa bazutela.

Diodanaren adibidea Izarbeibarreko Eskola deitu dudana izan daiteke, hau da, isolaturik ezagutzen diren Juan Beriainen lanak gerizpetu zituen giro kulturala izarbeibar aldeko apezten bilkura. Ezagun da nahikoa berandu arte Errenazimenduko hegoaldera euskaraz mardo eta naroki hitz egin dela. Bonaparteren karta zein jasoriko langaiak honen lekuko, baita noiz-behinka agertzen diren datu bakanak: Adiosko Martin Azterainek eta Utergako Mariak 1547. urtean elkarri emaniko ezkontzeko hitza, Satrustegik Muruzabalen atxemandako XVIII. mendeko predikuen bilduma, edota Anselmo Legardak Utergako Baztan etxean topatu XVIII. mendeko dotrina, egile ezagunik gabekoa.

Alta, bada lekukotasunik XVII. mendean Izarbeibarren gai erlijiosoak bereziki lantzeko bilkura kulto bat izan zela batezatzeko; eta hortaz, horren barruan ulertu eta kokatu behar dira Beriainen bi liburuak, bai 1621. urteko *Tra-tado de cómo se ha de oír misa, eta bai 1626. urteko Doctrina cristiana en romance y bascuence*.

Eskola honetako beste kideen artean Beriainen laguna zen Juan Undiano aipatu beharra dago lehenik -1615. urteko abenduan Etxaguen izan zen Beriainen sendikoa zen Altzorritzar baten ezkontzan-; izen ezaguna euskal letretan, Estornesek 1970eko FLVn ezagutze-
ra eman zigunetik, alabaina bere euskal kantutegia, ez bere euskal bertsoak, ez zaizkigu iritsi, agidanean, eta Arnotegin

eman zituen urteetako gora-behera kalapitatsuekin konformatu behar dugu gaur geroz.

Euskaraz idatzi ez bazuten ere, euskaldunak zirelako, eta bereziki izarbeibartarrak zirelako eta Izarbeibarren bete zutelako eta beren apez-lana, adiestar eta garestar biren lekukotasun idatzia dugu eskola honen nondik-norakoak zehazten hasteko. Adiosko semea zen Juan Lezaun sorterriko abadea ere izan zen, bertan 1699an zendu zelarik. Urte batzuk lehentxeago, 1692an hain zuzen, eta Iruñetik ekarrazazi zuen Domingo Berdalak moldakaturik, izenburu luzeko eliz liburu atera zuen Adiosen bertan ere: *Thesoro Evangélico para los curas de almas en que se trata de siete artículos de la divinidad y de los primeros de la santa humanidad de nuestro señor Jesuchristo, del aprecio del alma, obligación de los curas, de la fe, de la infirilidad de la sagrada escritura, de la creación de los ángeles y de la providencia divina, de los siete vicios capitales y virtudes contrarias a ellos, de las excelencias de María Nuestra Señora, de la circuncisión del niño Jesús, de la adoración de los reyes magos, de la fuga a Egipto y crueldad de Herodes, de los cinco últimos artículos de la Santa Humanidad de Christo Señor Nuestro, de la soledad de María Santísima, de la Iglesia y su tesoro, de la comunión de los fieles, de los cuatro infiernos, de las indulgencias y sufragios de almas, del purgatorio, de la muerte, de la poca seguridad de la presente vida, de la venida del Espíritu Santo, de sus siete dones y doce frutos, de la venida del anticristo y señales que precederán el juicio final y los rigores y circunstancias de él*. Honako lana Iruñean orduan gotzain

zegoen Juan Grande Santos de San Pedrori eskeini zion, eta Joseph Burdeus mertzedario eta Manuel Sorkundekoa trinitarioak idatzi zizkieten onarpenak. Liburuan bertan dioskunez, Juan Lezaun ez zen, ia bizitza osoan, sorterritik atera, eta Adiosen eman zituen abade-garaian anaia baten laguntza izan zuen, apeza ere bertako benefiziadu.

Lezaunen liburu moldakatu zuen liburuegile berak, hau da, Iruñeko Zapateria karrikan moldetegia zuen Domingo Berdalak, Adioskoarena bukatu eta segituan, heldu zen 1693an hain zuzen ere, Garesko Joan Joakin Berdun Gendulainen lana prestatu zuen argitara emateko: *Libro de las milagrosas vidas y gloriosos triunfos de las dos apostólicas columnas de el augusto reino de Navarra San saturnino y San Fermín trismegistos admirables ilustres en la nobleza, heroticos en la dignidad y en el martirio grandes*. Garesen bertan moldakatu zen honako lanak ez zuen egiantzik, eta karrikan adi zitezkeen kontu zaharretan oinarrituago zirudien artxibotako datuetan baino; Iruñeari eskeinia, «vena feliz de purezas y gloriosas azañas», San Ferminen eta San Zerninen bizitzak zein Bideko Donamariaren eta Aralarko Aingeruaren agerpenen gora-beherak jaso zituen, Pérez Goienaren aburuz inolako kriteriorik gabe ez eta zentzu historikorik; halaz ere, Berdun teologian doktorea genuen, eta

Garesko abadea izateaz gain, bertako Izpiritu Santuko moja agustindarren bikarioa izan zen, eta liburuan jasotzen denez, ez zuen eragozpen haundirik Lorentzo Gartzia Beruete domingotarraren eta Domingo Pérez Atotxa artzedianoaren oniritziak eskuratzeko.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Uxioren arimagatik

Badoa mendian bidea, zoroa bezala itsumustuan. Bakarrean iragaiten du mendi osoa, zeruaren presentzia haundia, beste lagunik ez duela, pentzearen ixilaren gainean. Nik ez dakit nora doan, begira gelditzen natzaiolarik. Amesten ari naizen ametsa hantxe burutzen dela dakit bakarrik. Bidea goiti behiti okerka, eta hurrunean hil...

Jose de Parada doa, bakarrik iraganez Devesa do Reboloa. Geldiro bide eginaz ardoaren lurra du iragaiten, Viana do Bolorantz. Atzean utzi du mendia. Arima dio hartua bideko malurak. Freixeiroko lur zakarrak! Mendi pikoak! Herri pobreak hezurretan geldituak!...

Harriagen Moreda! Barxako lizarrondo intxaurrondoak! Boca do Couto! Regueirako Urak eta Pentzeak! Lur malkarrean behiti, Fontaña da Rosatik errota untzaduneraino, urak harrietan hauzika, ateari uxarka zezena, neskak irazkian ehotzen, mendi urruna ketan, eta marruka idi gorria...

Regueirako Ur Zuriak! Sasi-pe ilunak txaraz eta otez! Betilorak haginak pagoak gorostiak eta hariztiak! Baso luze isila! Orkatzen iturriñoak! Ubide saionak! Ez dago temple zabalagorik, ez beste sinesterik, isiltasun hau baikiz...

Lucenzako lur goiak eta argiak, hurbilean ikusteko mendilepo urrunak! Hegan doaz arranoak hegalek zabal, itzala harkaitz zurietan zehar eramanaz eta belar urre eta odol kolorekotan. Ikusten dudana eta ikusten nauen hauxe nauzu ni: Cebreiro! Faro! Iribio! Cervantes! Ancares! Capeloso! Montauto! Rebolo! Coureleko gailur ilunak! Oencia eta Val di Orraseko mendi luzeak!... bihotza bortuen isiltasun antzinakoa presu...

Elurra ari du gailurraren tontorrean, elurra ari hegian, elurra ari du teilatuan eta larrainean... Ni suari begira,

eta niri begira sua. Erre gabe suak ni egiten nau ke... Jo dute elur ezkiek. Arima berez baitaratua isilago bilakatu da eta ezin du eta ez da ausartzen. Heldu da lotako tenorea. Suak ez du iada kerik ematen, ez garrik. Hainbeste gauza esan ondoren, ahituak dira hizketarako gogoak... Suaren begiak bat egiten ditu suak...

Trumoi haize eta euri, lurra musu eman dio zeruari. Bart bota duen gaua, entzun zuenarentzat izan da bakarrik. Lubicierasko iturria, hogeitahotatik sortua, milaka dointutako kantaria! Uraren distira bazterretan... Kukulapatxak txilardietan, goiko baso eta laiotzetan... Heldu dira haizeak Rodelarentz, heldu dira feriak, neskatilak joatekoak izterrak erakustera.

Neskatilak neskatilak dira, neskatila dontzeila luzera liraineoak, neskatila gazte uzta berrikoak! Heldu dira feriak. Heldu dira festak...

Irule maitemindua, sutondoan irule, begiak emana zauden gar gorrika zuri urdinei. Neguko gau luzeetan, haririk mehenak pentsamenduaren hariak iruten dituzun irulea. Elurra isil ari du kanpoan, teilatua gainetan mutu, zuk irun eta amets egiten duzu, urruneko zera batean... Irule mazala, beti irun beharrez, beti irun eta amets, eta gero zera hura deus ez...

Isilik bide eginaz badao bidaztia bere ametsetan, bide luzea betean, hain lurralde berean, non ikusi eta ez dakien, dakusan ala oroitu egiten duen. Denbora itxia daukadan gela neurea! Eguneroko egunak! Neure ganoragabekeriak badaki noizbait bizitzaz. Dena iada iragandako zerbait balitz bezala.

Baina leku orok du bideren bat, haratago ez doana. Jaitsi da otsoa basoaren begitik, bidezihorretako orbeletan zarataka, ordoki bakar eta beldurtienaren bila. Aztarren-du, gelditu, usnatu, atzaparra tinkatu, burua jaso eta, ulu egin du zerurantz, gauaren itzal osoa ahoan...

Ziria

• Motxorrosolo •

Bide berriak

Zabaltzeak trinkotzea ekarri du. Trinkotzearena ez da gertakizun berria, aroak egiten du ezberdin. Bide berriak urratzera kondnaturik gurean. Aukeran, ederrena izan dadila.

Cesar Krutxaga Futbolaria

«Guztia emanen nuke Lehen Mailan aritzearen truke»

Osasunako harrobiko jokalarietako bat da Cesar Krutxaga. Aurtengo denboraldian, hala ere, ez du zorte handirik izan, hilabete eman baitu jokatu gabe, lesio bat zuelako. Orain, talde gorritxoarekin elkarrizketetan da, kontratua berritzeko. Nafarrak etxean gelditu nahi du.

Taxoaren entrenatu ondoren hartu gintuen Cesar Krutxaga jokalaria gorritxoak, Iruñean, Osasunan eman dituen urteei buruz eta taldearen egungo egoeraz mintzatzeko.

■ **Ia karrera osoa Osasunan eman duzu. Nolakoa da nafarren artean hainbeste jarraitzaile duen talde bateko kide izatea?**

Haurra nintzenean nire idoloa Martin zen; Sadarrera auzolagun batekin joaten nintzen, eta han ziren Urban, Irigibel; belaunaldi hartako jokalaria guztiak.

Niretzat benetakoz izarrak ziren. Nafarra izanik, Osasunan jokatzeko ametsa zen niretzat, baina oso urrun ikusten nuen, ia ezinezkoa. Gutxinaka, ordea, urratsak egiten dituzu eta, konturatu gabe, Osasunako bigarren taldera iristen zara, eta gero lehenengora. Zorteak ere zeri-kusi handia du. Bigarren taldeetik bota ninduten eta urtebete kanpoan egon nintzen. Gero, Martinek hartu zuen taldea eta harekin itzuli nintzen Osasunara.

■ **Orain zu zara Osasunako izarra.**

Beno, nik ez dut uste Irigibel, Etxeberria eta besteak bezalakoak garenik. Niretzat haiek izarrak ziren, eta ez dut

uste gu halakoak garenik. Agian haiei gauza bera gertatzen zitzaion, baina egoera ezberdina zen. Lehen mailan aritzen ziren, eta ez da gauza bera Real Madriden aurka edo Bigarren mailan aritzea. Nik daukadan guztia emanen nuke urtebetez Lehen mailan aritzearen truke.

■ **Entrenatzaile berriarekin hasi duzue denboraldi berria. Aldaketa handia sumatu al duzue?**

Martin eta Lotina entrenatzaile ezberdinak dira, baina ez dut uste aldaketa oso handia izan denik. Denboraldi-aurrea da entrenatzaile berriak nahi duenera egokitze garaia, eta, azken finean, futbolak ez du hainbeste sekreturik. Emaizak onak badira, mundu guztia da ona, eta, alderantziz.

■ **Miguel Angel Lotina ez da taldeko kide berri bakarra; jokalaria etorri dira aurten, eta beste batzuek alde egin dute. Asko aldatu al da aldagelako giroa?**

Ez, antzeko giroa dugu. Morales, Josetxo, Descarga, Arteaga eta Lopez Vallejo joan dira, baina oraindik nafarrak gara Osasunako muina. Etorri direnak ere oso jatorrak

dira, eta giroa beti bezain onada. ■ **Hilabete egon zara jokatu gabe giharretako lesioa zela eta; igandean Lotinaren hamaikakora itzuli zinen. Hainbeste denbora**



● JOXE LACALLE

soslaia

1974. urteko urtarrilaren 26an sortu zen Cesar Krutxaga jokalaria gorritxoak, Ezkarozen. Futboleko jokatzeko hasi aurretik, eskubaloian aritu zen, ikastetxean, eta txirindularitza munduan murgiltzen ere saiatu zen. Azkenean, ordea, futbola aukeratu zuen Krutxagak: Osasunako haurren taldean hasi eta lehenengo taldean da orain.

Urtebetez kanpoan egon ondoren, Enrique Martinek itzuli zen Krutxaga Osasunara. Talde nafarrarekin Bigarren Mailan jokatu du nafarrak, baina aitortu du guztia emanen lukeela Lehen Mailan aritzearen truke. «Iaz igoeratik inoiz baino gertuago egon ginen, baina azkenean ez genuen lortu. Futboleko pazientzia izan behar da».

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Ingeniaritza ikasten ari da Cesar Krutxaga. «Hasieran, ikasketak ziren garrantzitsuena, eta, futbola, aisialdia betetzeko modu bat. Orain, ordea, alderantzizkoa da egoera: futbola da lehenengo, eta, ondoren, ikasketak daude».

dira, eta giroa beti bezain onada.

■ **Hilabete egon zara jokatu gabe giharretako lesioa zela eta; igandean Lotinaren hamaikakora itzuli zinen. Hainbeste denbora**

zelaitik kanpo egon ondoren, nola bizi du futbolari batek hamaikakora itzultzea?

Lesioa duzunean denbora oso mantso igarotzen da; etengabe ari zara berriro jo-

katzeko prest noiz egonen zaren pentsatzen. Eta berriro beste jokalariekin entrenatzen hasten zarenean poza izugarrikoa da.

■ **Lesio baten erruz denbora asko eman dezakezu taldeetik kanpo, jokalaria gehiago baitago zuk hutsik utzi duzun lekua betetzeko. Zuk ez duzu zorte handirik izan aurten lesioekin. Asko sofritzen al da?**

Bai, konpetentzia handia dagoelako taldean. Txartela ikusten duzunean, edo min hartzen duzunean, badakizu taldera itzultzea zaila izan dela, eta, aukera hori ailegatzeko denbora, aprobeixatu egin behar duzu.

■ **Taldea bolada txarra pasatzen ari da orain, batez ere etxetik kanpo lortutako emaitza txarren ondorioz. Urduritzen hasi al zarete?**

Beno, nik uste dut kanpoan partida bat irabazten dugunean egoerak hobera egiten duela. Kostatzen ari zaigu, baina uste dut laster amaiera emanen diogula bolada txar honi. Gainera, lesio eta txar telekin zorte txarra izan dugu, eta taldea berriro ongi egoten denean emaitzetan nabaritu egiten dela uste dut.

■ **Osasunarekin duzun kontratua berritzeko elkarrizketetan zabilta orain; Real eta beste hainbat taldek zu fitzatzeko interesa agertu izan dute. Zuk non ikusten duzu zure burua? Iruñean edo hemendik kanpo?**

Nik argi daukat hemen gelditu nahi dudala, baina edozein erabaki hartu aurretik gauzak ongi pentsatu nahi ditut, urrats oso garrantzitsua delako. 25 urte ditut eta oraingoa izan daiteke futbolari gisa nire azken kontratua. Nik hemen gelditu nahi dut, eta, ahal bada, Osasunarekin jokatu Lehen mailan. Hemen gelditzen banaiz, baldintza egokietan izan beharko du.

→ Edurne Elizondo

Nafar Kronika

Aitor Arozena

Periferiatik Santiagora, zentrotik pasatu gabe

Estatu Batuak zentroa, gainerako mundu osoa periferia. Madril eta Paris zentroak, estatu horietako gainerako hiri eta herriak periferia; Iruñea zentroa. Nafarroako gainerako hiri eta herriak periferia. Komunikabide munduan ari garenontzat kontu jakina da hori. Berri gehienak zentroetan sortzen dira, komunikabide gehienak zentroetan biltzen dira, politiko gehienek zentroan duten beraien aukerak. Kultur mugimendu gehiena zentroan dago, antzerkiak, zinemak, musika taldeak... zentroetan daude. Periferian gauzak izan badaude, baina konplexu batek jota edo, ez gara inoiz zentroko gauzeekin konparatzera ausartzen. Periferiako irratia, aldizkari edo telebista ez da inoiz zentrokoaren parekoa izanen, nahiz eta zentroko komunikabideak herriz herriko berri horien bila-ikus-entzule, irakurle gehiagoren bila, alegia-gero eta gehiago saiatu. Periferiako politikoa zentrorako jo beharko du periferiarako beharrezko diren kontuak eskatzera eta aferak moldatzera. Zentroko politikari-kontseilari-zuzendari-presidentea inaugurazioen kariatara bakarrik agertuko da periferiara (gastronomia kontuan ez baitago hainbertzeko alderik zentro eta periferiaren artean). Kultur munduko taldeek zentrorako begiratuko dute beraien agerraldiak egiteko, ikus-entzule-irakurle potentzialen gehiengoa zentroan biltzen baita.

Zergatik nabil horrelako ingurumarietan? Bada, salbuespenak ere izaten direla aipatzeko. Horren adibidea da Berako Lamixine Antzerki Taldeak emandako pausoa. Antzerki taller batetik abiatu eta profesionalizazioarako bidea hartu dute, non eta Beran. Pauso horren nondik norakoak emateko prentsaurrekoa Berako Herriko Etxean eman dute eta ez Iruñean. Eta beraien lehen antzerki lan profesionalaren estreinaldia Elizondo eta Berako karriketan egin dute eta ez Gaiarre antzokian. Eta ez pentsa beraien antzezlanaren gaia herri mailakoa denik: Donejakuerantzako bidean antzezlanak Santiago Bidea du oinarritzat eta, Elizondo eta Bera ondotik, Bide horrekin zerikusia duten Nafarroa eta Espainiako herrietan karrikartzeko asmoa dute. Euskarazko izenaren zuzentasunean sartu gabe, bide ausarta hartu dute Lamixinekoek: Periferiatik Santiagora, zentrotik pasatu gabe.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Lekunberri:** Bide Ertzean Gipuzkoako taldea Kultur Etxean ariko da gaur, 20:00etan.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Alboka taldea Kultur Etxean izanen da gaur, 22:00etan.
- ▶ **Aitzoain:** Ktulu Trash taldea Artsaian izanen da gaur.
- ▶ **Falces:** Koma eta Buitraker musika taldeek kontzertua emanen dute gaur diskotekan, gaueko 00:30etan.
- ▶ **Elizondo:** Yambar senegaldarrek bihar, 20:00etan, kontzertua emanen dute Kultur Etxean.
- ▶ **Arantza:** Orbela folk taldea eskolako gimnasioan izanen da bihar, 20:30etan.
- ▶ **Lizarrak:** Berri Txarrak eta Withness ikusteko parada egonen da bihar, 23:00etan, Gaztetxean.
- ▶ **Donibane-Lohizune:** Koma talde burlatarrak joko du, asteazkenean. Ostegunean Lizarran izanen dira.
- ▶ **Iruñea:** Withness taldea Terminal tabernan izanen da ostegunean, 21:00etan.
- ▶ **Barañain:** Bide Ertzean gipuzkoarrak Eulza ikastetxean izanen dira ostegunean, 20:00etan.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Oitz:** Bihar, larunbatarekin, bertso afaria izanen da Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso gipuzkoarrek.
- ▶ **Uropel:** Igandean Xalbadorren Eguna ospatuko dute. Elizan, 16:00etan, Lizaso, Amuriza, Sarasua, Ezponda, Lujanbio eta Xanpun izanen dira.

HITZALDIAK

- ▶ **Atarrabia:** Gaur, 19:30etan, kultur etxean *Euskaraz bizitzea* helburu hitzaldia eskainiko du Karrikiriko kide Rosa Ramosék.
- ▶ **Iruñea:** Gaur, 20:30etan,

Patxi Sanchez-Dehesa gasteiztarrak *Ekuador eta Galapago Uharteak* diapositiba emanaldia eskainiko du Nafarroa Kirol Elkartearen. Era berean, *Nepal, país de reflexión* argazki erakusketa zabalduko du Elkartearen.

- ▶ **Iruñea:** Asteazkenean Jose Iriarte Bikilak *Borrokaren gorrian* liburua aurkeztuko du Zaldiko Maldikon, 20:00etan.
- ▶ **Mutiloa Goiti:** Ostegunean, 20:00etan, Herriko Kultur Etxean, Anfas elkartearen zuzendari Maria Jesus Alva-

rezek Down sindromeaz hitz eginen du.

ANTZERKIA

- ▶ **Burlata:** Gaur, 20:00etan, Hika taldeak *Arraultza delikatu* antzezlan eskainiko du Axular elkartearen.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Bihar, Txalo taldeak *Dama eta kardinala* lana taularatuko du Kultur Etxean, 20:00etan.
- ▶ **Iturmendi:** Bihar, T'Omblio Teatrok *Aitona mutua* antzezlan eskainiko du, 19:00etan, herriko frontoian.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Hilaren 13a arte, Kultur Etxean Corrado Massaciren txotxongilo erakusketa ikusteko aukera dago.

BESTELAKOAK

- ▶ **Erpronkari:** Bihar Txan Handia magoak haurrentzako saioa eskainiko du Urzainkiko udaletxean, 18:30etan. Gaueko 21:00etan helduendako saioa emanen du Burgiko udaletxean, eta ondoren euskaltzaleen afaria izanen da, Kebenko taldeak antolatutik.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿Y-este é o mundo que fixo Deus?

Eta mundu hau Jainkoak egina de-a?